



Eskolartekoa, plazaz plaza

Euskal Herriko Eskolartekoa kantatu behar zuten bertsolariak gaur egun plazetan aritzen direnekin elkartu ditugu Eskolatik Plazara ekimenean; hiru saio antolatu ditugu eta otsailaren 5ean izango da hurrengoa, Iruñean.

2020ko Euskal Herriko Eskolarteko finala ekainean zen egitekoa; gero, azaroan; baina, pandemiaren eraginez, saiakera bat zein bestea ezin izan ziren gauzatu. Lurraldeetan saioak egiteko aukera izan zen eta horietako bakoitzean erabaki ziren Euskal Herrikoan parte hartuko zuten gazteak zeintzuk izango ziren.

Finala egin ezin izanenez, plaza eskaini nahi izan zaie kantatzekoak ziren hamar bertsolari gazteei. Horregatik sortu da Eskolatik Plazara, Eskolartekoa kantatu behar zuten bertsolariak eta egun plazetan aritzen direnak batuko dituen ekimena.

Lehenengo saioa Gernika-Lumoko Astran egin zen urtarrilaren 29an eta han kantatu zuten Iruñe Basagoitik, Leire Vargasek eta Naia Arrizabalagak, Etxahun Lekuerekin eta Maialen Lujanbiorekin batera. Bigarren saioa Iruñean izango da otsailaren 5ean, Nafarroako Antzerki Eskolan, 18:00etan. Eukene Los Airesek, Aitor Ugartek, Ekhiñe Zapiainek eta Bittori Elizaldekan kantatuko dute bertan Alaia Martinekin eta Julio Sotorekin batera. Hirugarren saioa xehetasunak laster jakinaraziko ditugu.

Saio hauetarako sarrera doakoa izango da, baina Bertsozale Elkartearen webgunean sortu dugun izen-emate orria bete beharko da aretoan lekua hartzeko.

Hazparneko Bertso Eguna maiatzaren egingo da

Oraintsu iragarri genuen baten ordez hiru bertso egun egingo genituela 2021ean: urtarrilaren 30ean, Hazparnen; otsailaren 13an, Iruñean; eta martxoaren 27an, Getarian.

Lapurdin egun dauden neurriein ezinezkoa da bertso saiorik egitea, horregatik, maiatzaren 22ra atzeratuko da Hazparneko Bertso Eguna. Leku berean izango da, Mendeala gelan, baina ordubete lehenago, 17:00etan. Sarrera erosi duzuenoi dirua itzuli edo udaberriko saiorako gordeko zaizue sarrera.

Otsailaren 13koa izango da, beraz, egingo dugun lehenengo Bertso Eguna. Iruñeko Gayarren izango da eta kantatuko duten bertsolariak Julio Soto, Miren Amuriza, Onintza Enbeita eta Xabier Silveira izango dira, Ainhoa Larretxea gai-jartzailearen gidaritzarekin.

Getariako Cristóbal Balenciaga Museoa hartuko du martxoaren 27koa. Alaia Martin, Unai Iturriaga eta Uxue Alberdi ariko dira bertsoan, Maite Berriozabal lemazain dutela.

Hiru emanaldiak Internetez zuzenean nahiz aurrez aurre ikusi ahal izango dira: modu baterako zein besterako sarrera eskuratu behar izango da. Aretoetarako sarrerei dagokienez, Iruñeko sarrerak www.teatrogayarre.com atarian daude eskuragai; eta Hazparnekoak eta Getariakoak www.bertsosarrerak.eus atarian lortu ahal izango dira. Getariakoak, gainera, herriko Turismo Bulegoan ere eskuratu ahal izango dira. Aukeren arabera salneurria ezberdina izango da, eta bazkideek eta gazteek merkeago eskuratu ahal izango dituzte.



**XABAT
ILLARREGI MARZOL**

**Mariano Izeta Sariketako
txapelduna**

Irurita, 2020-12-27

Doinua: Arratsalde on eta muxu bat

Nahiz ta gaztea kostata igo oholtzara aurrenean nahiz ta gazteak sarri sentitu nerbioak barrenean ikusi zenbat jende igo den gaur bertsoaren trenean ikusi zenbat gazte dabilen bertsoan ta sormenean. "Garai onenak hauek ez dira" nahiz eta esan denean nafar bertsoa oraintxe dago garairik hoberenean.



Gernika-Lumoko Astran egin zen lehenengo saioa, urtarrilaren 29an. / XDZ

700 saio baino gehiago galdu dira 2020an

lazko datuekin alderatuta, hamarretik sei saio ez dira egin, eta 735.000 euro ingurukoa da galera ekonomikoa. Bertsozale Elkartek herriz herriko bertso-eskolen eta antolatzaileen lana balioan jarri nahi du.

Sekulako eragina izan du pandemiak bertso saioen kopuruetan eta ezaugarrietan, besteak beste. Xenpelar Dokumentazio Zentroari esker jaso ohi ditugu bertso saioen inguruko datuak eta, horien arabera, 2019an, bertsozaritza ardatz zuten 1.121 ekitaldi egin ziren; 2020an, aldiz, 435 inguru egin dira. Bestela esanda, bi urteak erkatuta, hamarretik sei saio ez dira egin. Aintzat hartu behar da, gainera, 2020an ezohiko baldintzetan egindako bertso saioak daudela, eta horiek ere hartzen dituela urte horretako kopuruak. Horrek 735.000 euroko galera ekonomikoa ekarri du berekin.

Eragin handiena, libreko saioetan

Segurtasun arauen neurriara egokitutako saioak gauzatu ahal izan dituzte antolatzaileek, eta, ondorioz, bertso saio mota jakin batzuegan ondorioak handiagoak izan dira.



Lagunarteko eta libreko saioen kasua da hori. Saio hauek osatzen dute multzorik handiena urteroko bertso plazan: alegia, otorduetan edo mahai-inguruan egiten direnak eta,

gai-jartzailerik gabe bertsozariak ikus-entzuleengandik hurbil kalean egiten dituztenak. 2020an %58 jaitzi ziren lehenak, eta %86 bigarrenak.

Jaialdiak –bertsozariak oholtzan eta haien aurrean ikus-entzuleak- izan dira egoerari ondoen eutsi diotenak, nahiz eta 2019an baino gutxiago izan diren: 138 egin dira, %37 gutxiago. Kasu batzuetan, lagunartekoen eta librekoen ordezko ere izan dira, hauek egiteko baldintzak ez egonda.

Lanku Kultur Zerbitzuen ondorioak

Plaza sustatzeko egituretan ere nabarmena izan da eragina. Lanku Kultur Zerbitzuak enpresa ERTEn egon zen 2020ko udaberrian; izan ere, martxotik antzeman da beherakada nabarmena saioen antolaketan eta horri loturiko zerbitzu eskarian.

Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotzen ditugun datuen arabera, azken hamarkadetan goranzko nabarmena izan dute bertso saioek, eta kopurua mantendu egin da azken urteotan. Martxora arte, 2020ko datuak ez ziren batere txarrak; iguera txiki bat ere antzeman zen bertso plazan lehor samarrak izaten diren lehen bi hilabeteetan.

Baldintza berrietara egokitzea ez da erraza izan, baina bertsozariak nabarmendu dute sumatu dutela zaleen bertso gosea. Bertso-eskola edota bertsozale talde bat dagoen herrietan eutsi zaie, bereziki, bertso saioei, eta Bertsozale Elkartek herriz herriko bertso eskolen eta antolatzaileen lana balioan jarri nahi du, zailtasun guztien gainetik ekitaldiak gauzatzeko ekina eta eginahala handia izan delako.



Antolatzaileek segurtasun neurrien arabera egokitu dituzte saioak. / XDZ

Otsailean eta martxoan egingo ditugu batzar nagusiak

Pandemiaren eraginez egon daitezkeen mugikortasun arazoak direla eta, batzarrak online jarraitzeko aukera ere egongo da aurten.

Pandemiak ziprztinduta joan ziren iazko batzar nagusi gehienak eta aurtengoak ere halaxe iritsiko dira. Martxoaren 18an izango da Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Batzar Nagusia Amasa-Villabonako Subijana etxean, 18:30etik 20:30era. Han bertan zein online jarraitzeko aukera egongo da. Batzarrean, 2020ko memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztuko dira, egitasmo nagusiak eta lurraldeetako egoera ezagutuko ditugu eta 2021eko aurrekontua proposatu eta bozkatuko da.

Aurretik, lurraldeetako batzarrak

Euskal Herrikoa egin orduko lurraldeetako batzarrak egingo dira. Arabako Bertsozale Elkartea izango da egiten lehenengoa, otsailaren 7an, Gasteizko Amaia Zentroan. 12:00etan hasiko

da. Nafarroa izango da hurrengoa; otsailaren 13an izango da batzarra Kondestableko Civivoxeko areto nagusian, 11:00etan. Otsaileko azkena Bertsozaleen Lagunak Elkarteko Biltzar nagusia izango da, hilaren 19an, Senpereko Larraldea etxean.

Martxoaren 10ean egingo du Gipuzkoako Bertsozale Elkartek Batzar Nagusia Orioko kultur etxean, 18:30etik aurrera. Hiru egunera izango da Bizkaikoa, martxoaren 13an, 10:30ean, Gernika-Lumoko Astran.

Bertatik bertara zein online, zuen herrialdeko eta Euskal Herriko batzarretara bertaratzeko gonbita luzatu nahi dizuegu bazkide guztioi.



Batzarrera bertaratzeko zein online jarraitzeko aukera egongo da. / XDZ

Aitor Sarasua bertso paper lehiaketa, **abian**

Bertso paper lehiaketa berria antolatu dugu Bertsozaleen Lagunak Elkartetik; otsailaren 28ra arte bidali ahal izango dira lanak.

Bertsozaleen Lagunak Elkartetik Aitor Sarasua bertso paper lehiaketa antolatu dugu lehenbiziko aldiz. Euskal Herri guztiko bertsoari zuzendua da, eta bertso sortak aurkezteko epeak otsailaren 28an izanen du muga. Martxoaren 20an jakinaraziko da epaia.

Urteroko lehiaketa izan nahi duen honek gazteen eta helduen sailak barne izanen ditu. Gazteen saila 16 urte artekoa izanen da eta helduen saila adin horretatik gorakoentzat. Bertso paper lehiaketa honen helburua bertsoaren aldaera guziren presentzia

bermatzeaz gain, plazatik harago dauden bertsoari adierazteko parada ematea da. Izan ere, tradizioz, Ipar Euskal Herrian, eta Euskal Herri osoan, oro har, bertso idatziak leku handia izan du. Tradizio hori bermatzea eta hedatzea da asmoa, bertso gintzan eta Ipar Euskal Herriko bertso irakaskuntzan eta sustapenean hain leku garrantzitsua izan duen Aitor Sarasua omentzearekin batera.

Parte hartzeko baldintzak eta sariak www.bertsozale.eus atarian dituzue.



Puntu jarrita

BIXENTE HIRIGARAI

Aupa Bixente, hara hau galdera ona, urtea gogoetan untsa hasteko. Ene esperientzia xumetik, erantzun edo pista batzuen ekartzea espreatuko naiz laburzki.

Lehenbizi, zure galderari baiezkoan erantzunen nuke, ez baitzaut batere trabagarri, bertsulari batek publikoaren parte bat txiste batentzat bazter uztea. Urruntseago joaiteko, uste dut, usu lehen ideia botatzea komeni dela, buruan itzuli gehiegi egitea baino. Behintzat hola zaut gehien gustatzen bertsoa, bat-batekotasunean.

Gisa guziz, nahi ala ez, usu gertatuko da publikoaren parte batek, bertso hau edo hura, ez arras ongi segitzea, edo bigarren irakurketa ez hartzea edo beste.

Argi dutana hala ere, ez duela bertsulari batek, publiko oso bat bazter utziko, bertsoaldi edo bertso saio oso batean. Uste dut gehienetan eta hein haundi batean, bertsoaldi edo bertso saio kausitua, publiko eta bertsulariaren arteko konekzioak duela bermatzen.

Bestalde, bertsolariak desberdinki kantatuko du, haurrei edo gehitueri; desberdinki ostatuan edo herriko etxean, egunaz edo gauaz...

Orduan nola oreka atxeman, bertsolariak beretik kanta dezan, publikoari egokituz?

Hari horri tiraka, eta zure galdera pixka bat zabalduz, bertsolariak, pertsonaia jokatu ala ez, beti nahi duena kantatzen ote du? Iduritzen zaut artetan, bertsolariak publikoari gehiegi kantatzen duela, eta beretik ez aski. Publikoak entzun nahi duena kantatzen duela.

Ez nakike aldiz azaltzen zerk enegan, eragiten duen inpresio hori. Behar bada saioen formatu arautuak enoatzen nauelako doi bat, edo gai jarriekilako saioen ohiturak. Agian horrek berdintzen dituelako bakotxaren bertso egiteko manierak. Taula gaineko saioak baztertu gabe, ostatuko edo libreko saio gehiago antolatzea gustukoago nuke? Ea etorkizun hurbilean horien antolatzeko parada izaiten dugun.

Han artean, galdera guzi horiek buruan, Maindi, pilota zuri botatzen dautzut, gogoeta segitu nahi baduzu...

Koplak

Gai-jartzaileentzako ikastaroa, otsailaren 6an

Ez da kasualitatea saioetara begira prestatzeko helburuarekin, gai-jartzaileentzako ikastaroa antolatu dugu otsailaren 6rako, Amaia Agirrek gidatuta. Ikastarora saio mota horietan aritzeko prest dauden gai-jartzaile emakumeei egin zaie gonbidapena. Aurrez aurre zein online jarraitzeko aukera emango da. Ikastaroa doakoa da eta izena emateko Bertsozale Elkarteko web orrian jarri dugun formularioa bete behar da otsailaren 2a baino lehen.

Poto-Finixa



Gora sormena!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Bizkaiko bertsolari gazteentzako Plazara! ekimena, martxan

28 gaztek eman dute izena lehenengo *Plazara!* gazteentzako bertso zirkuituan. Eskualdez eskualde ibiliko da zirkuitua eta hilabetero, gutxienez, saio bat egingo da. Hilabete bakoitzean eskualde baten ardura izango da saioa etxean hartu eta antolatzea. Ekimenaren helburua, alde batetik, gazteen plazaratzean eragitea da eta, beste alde batetik, beraien arteko saretzea eta talde izaera indartzea.



Eskuragari www.lanku.eus atarian